Et venit in omnem regionem Jordanis predicans Bautismum Peniten
tie in remisionem pecatorum: Luc. Cp. 3.

Gaurco Evangelioac esaten deuscu N. P., urtenic S.n Juan Bau
tista soledadetic, juan zala Jordan aldeco erricetara, eta asizala Jaun
goicoaren ordenaz penitencia predicatcen: eguin eguizube peniten
cia, esaten eusten, bada au da zuben pecatuben parcacioa logratceco erremedio bacarra, guertatu eguizube vioztac Jesu Christoren
etorreraco, jarraitcen diezuela bere videai, cumplitcen dozubela
bere legue santubaz, negar eguiten dozubela zuben orainguiñoco
vide gabeaggaiti, eta humillatcen zazela lurrerañó, bada Jesu
Christo izanic zuben Jaun eta jabia humillatu da guizon eguiteraño: modu onetan convidatcen citubau S.n Juanec Judeguboc
penitencia eguitera, eta modu onetan convidatcen gaitu gu gaurco eguinian Eliza Ama Santac: encargatcen deuscu, guertatu daiguela vioztac Jesu Christoren etorreraco, eta viurtu gaitecela
viotzetic Jaungoicoagana. verba baten encargatcen deuscu viotzeco penitencia. Jesu Christo da Jaungoico eta guizon eguiazcoa.
Jaungoicoa dan leguez ezagutcen ditu, munduban eguin diran
eta eguingo diran guizonen pecatu guztiac. Guizona dan leguez,
eguin eben penitencia, ez bere pecatuacgaitic, ezpada besterenagaitic. Ezta izan iñor salvadore onec leguez ezagutu davenic,
cer dan Jaungoico izatia, eta icaragarrizco Magestade onen podoreoa, ceñen aldian ecer ere valio eztaube munduco Magestade
guztiac. Ezta izan JesuChristoc leguez ezagutu davenic Magestade onec pecatuari deutzan gorrotoa: azquenic ezta izan iñor
Salvadore onec leguez ezagutu davenic Jaungoicoen eta guizonen artian dagoan diferencia, eta nola Jesu Christoc ezagutcen eben ain ondo au guztiau, emendic dator, berac bacarric

ezaguteen ebela pecatuacgaitic euqui bear guenguiar damu,
eta doloriaren anditasuna. Enganatcen gara bada, baldin peca
tuari beguiratcen badeutzagu, ecer baliz leguez. Ah! Beguira
tuco baguentzo gure Errederntoriac leguez, ezagutuco guenque,
dala aun gaitz andia, ece borratuco bazan, Jaungoico guizon
batec isuli biar izan eben bere odol guztia, eta sufritu biar
izan eben eriotzarie gogorrena. Eta cer izango zan gugaz,
Jesu Christoc pecatua borratu ezpalen? Norc emongo eutzan
Jaungoicoari eguinsacori infinien satisfacciñoa, Jesu Christoc pe
nitencia eguin ezpalen? eta ce meritu gueucan guc, Jaungoico
bat, trinidadeco bigarren persona gure araguiz santuzic gugaitic
aimbeste padeciteeco? Batérez N. F. Bacarric guri euscun amo
rioac movitu eben. Ycusi eben, mundu guztia etzala Vita eternoa
ren justicia biguntceco diña, eta ecin sufrituric, Jaungoicoaren
imagina galtcea, artu eben gure izatia, eta alcanzatu eus
cun misericordia; baña uste dozube, Jesu Christoc eguin eben
penitenciaren videz, Vita Eternoari satisfacciñoa emon eutza
laco; eztozubela penitencia eguin bearric? Enganatcen zare.
Gu gara pecatu eguin dogunac, eta guria da penitencia eguitea.
Jesu Christoc penitencia eguin eben, Jaungoicoari satisfacciñoa
emoteco, eta guri exemploa ichiteco. Bay N. F. erremedio gabe
penitencia eguin bear dogu, bautizau ezquero pecatuan jausi
gazian guztioc. Penitencia eguiten ezpadozube, guztioc galduco
zare, dio Jesu Christoc. Modu onetan esaten deuscube Apostolu,
Concilio, eta Doctore santubac: guztiac encargatcen deuscube peniten
cia, eta penitencia viotzecoa, cegaitic beste mortificacio guztiac,
au gabe, eztaube batere balio. Eguiaz nola emonguiqiuio Jaun
goicoari viotza, Criaturetara biurturic daucagun bitartean?
Nola munduco gusto, eta atzeguintasunetaraco deseoa mantentcen
dogun bitartian? Gauza biarra da, bada, becatua borratu, eta Jaun
goicoen adisquidetasuna logratceco, viotza mudatcea, gauza biarra
da, Jaungoicoari eguin deutzagun desprecioa, damutasunaz erreme

diatcea, pecatuari gorroto andi bat artceia, ez gueiago eguiteco asmuaz. Au da pecatariac eman bear daben aurrenatceco pausoric bearrena, cegaitic Profeta Santuac esaten deuscunez, guizonac campoco pau zai beguiratcen deutso, baña Jaungoicoac viotzari, orregatic Joel Profeta Santuac, penitenciac izan bear dituban condicioen artian, lenengoa señalatcen dau viotzecoa izatia, urratu eguizube zu ben viotzac, esaten dau. Oce ondo ezaguten eben egui au David Erregue Santubac! Lotzaturic, eguin eben pecatuagaitic, jantci zan ciliciöz, mortificatu eben bere araguia, busti cituban bere beguiac negar samiñaguin, ala eze Jaungoicoaren Justicia bigundu, eta bere misericordia logratceco, ezeutzan batezere obra oneic eguint cer, ez eutzan esaten; Jauna, eztozu desprecialuco ciliciöz betorico gorputz au, negarrez bustitaco begui onecc, ezpada confianza oso bategaz esaten eutzan: eztozu Jauna despreciatuco nere viotz puscatu ta humillatua, cegaiti badaquit, damutasunaz puscatuco espiritua dala zuretzat sacrificio gozo eta ederrena. Bay N.F. viotz humillatua da Jaungoicoentzat sacrificioric gozuena, bada mancha Auac dira gañeraco gustiac, eta Jaungoicoen asarria biguntcen eztau benac; venturaz Antioco Erregueac dolore eta miseriaz inguratuic arguitu zanian, eguin eben penitencia, Jaungoicoen justiciac aguint cen eban moduban? Ez, N.F. acordau zan Jerusalenen eguineitu ban gaistaqueriaquin, ezagutu eben, bere pecatuacgaiti castigatcen ebela Jaungoicoac, baña bere viotza beti gogor mantendu zan, ez eben eguiazco damutasunic artu. Alperric ibillico gara, bada, gu ere, alperric esango dogu, damu dogula pecatu eguiñaz, alperric tristetu co gara pensatcian, eguin dituguun pecatuacgaiti etorrico jacula, sentit cen dituguun doloriac, inguratcen gaituben miseriac, baldin gure viotza eguiaz Jaungoicoagana bijurtcen ezpada, cergatic oneec dira penitencia eta sacrificio falsoac. Ay! eta cembatec ofrecit cen eztcutze Jaungoicoari sacrificio manchatuac, bere asarria bigundu bearrian, gueiago inetseguitcen deutcela? Cembatec egui

ten eztaube euren pecatuen confesioa, munduco gauzac movitu zic? Dala munduarequingo dauben izen ona mantenteeagaitic, edo beste interes falsoren bategaitic? Gure zorigaistocoac, onela eguiten badogu. Ez eguizube pensatu. Jaungoicoac recivituco ditu bala sacrificio oneec, Cainec esquini eutzanac baño gueiago; baña ez eguizube pensatu ere, bere asarretagunetic libratuco zarela beragandic iguesi ibili arren. Guizon bat infuriatu davenac aleguina eguiten dau, infuriatu davenen aurrian ez aguertceco, eta ascotan logratcen dau; baña Jaungoicoa ofenditu davenac, dio Sn. Agustinec, eztauco beste erremedioric, beragana biurtcea baño; bere justiciatic libratceco eztauco beste videric, bere misericordia eta ontarunera joatia baño. Eta onetan gauzaric miragarriena da, Jaungoicoac berac emotia lelengo pausoac. Jaungoicoac berac convidatu, arguitu, eta movitcen gau; eta ondo biarra dogu; cegaitic, cer eguin leique pecatariac Jaungoicoen laguntaruna gabe? Ylic dagoan batec, cer eguin leique virtutceco? Fedeco articuluba da, Jaungoicoac lagundu gabe, ecin alzaditequeala pecatarria, dazan estadu tristetic. Aita amorosoc onec bada, arguitu, movitu, eta convidatcen gau, pecatua ichiric, beragana viurtu gaitecen: eta cembat modutara movitcen gabela uste dozube? Batzubetan Aide baten traicio edo persecucioren baten videz, eracusten deuscu, munduco gaucen ecereztaruna, cein zoraqueria andia dan, ondarunac batu, fortuna gueitu, eta munduari gusto emotiagaitic, aimbeste naigabe, eta samintarun padecitcea. Beste batzubetan, enfermedade luce, adisquide, eta maite gueben persona baten eriotzaren videz eracusten deuscu, certan gueldítcen diran munduco ederstarunac; cein guchi contatu bear dogun osaruna, indar, eta gaztetarunagaz; aditcera emoten deuscu, etorrico dala gure suertia ere, ustéric guchien pensetan doguniau. Beste batzuetan: conversacioan aditu dogun berbaren bategaitic, edo conveniencias beteric vici zan personaren bat otoro Jaungoicoen serviciora

entregatu dalaco, deitcen deusu guri ere; eracusten deusu cé
feliçetan aurquitcen garian; paratcen deusu beguien aurrian
eguin ditugun pecatu guztiac euren circunstanciaguin, pecatua-
ren ondoren datozren oriotza, eta pecatu oneic examinatu bear ditu-
ban Juezaren atarretasuna; bide oneicaz gustiocaz movitcen gau
Jaungoicoac, beragana viurtu gaitecen: Oh, eta cé zorionecoac
garian orretan, N.C.. Bada gue ofenditu, eta despreciatu dogun Jaun-
goicoa, eta Aita amorosa bera arisacu deica. Ordu nere Seme mai-
tia, esaten deusu, zue despreciatu banaueu ere, nic etzaut bein ere
ichi guna, zu nere iguesi barabiltz ere, nic beti jarraituco deut-
zut, zu aaztu bazara ere, Semiac Aitari deutzan obligacioaz,
ni eznaiz aaztu, eta aazturic ere ez nais; Aitac Semiari eugui
bear deutzan amorioaz; atarraturic, eta zabetaco desamparat-
ceco motivoac badituz ere, ezteidt ichiten zuri deutzudan amo-
rioac; etzaitecela orainguiño duin gogorra izan, etzaitecela gortu nere
deiai, prompto aurquitcen naiz zu errecivitceco; Oh eta cé sentimen-
tubac artu bear dituban amma batec, dei oneic entzutian. Ordubân
movitcen da negar eguitera, eguin dituban pecatuac gaitic: Ordubân
etorten jaco, iñoiz ere sentitu ez dituban pensamentunic tristienac;
Ay, esaten dau bere barruban santurric, certan dempora pasatu dot
nic? Certan empleatu ditut nic aimberte urte? Aimberte urte bate-
re provechunic gabe? Aimberte urte nere inclinacino donguien
arpian? Aimberte urte, nere Aita, nere Jaungoicoa, eta nere Jabia
ofenditcen? Aimberte urte nere ammaz casunic eguin gabe? Ondo
mereci ditut, Jauna, iñun aurquitcen dirân castigu gustiac, mereci
ditut infernuban aurquitcen diran castigu gustiac: Arrazoia da,
Jauna, ni laco seme ezquergaitocoac Aitaren ondasunetan parteric
ez izatia; Castiga naizazu ordu orian, bada ondo mereci dot; baña
etzaitecela artu zure ainchinaco misericordiaz; gogorra eta ezquer
33

gaiztocoa baguiz ere; acorda zaitez, zuc eguindaco criaturia nacela; Oh, damutasun eguiazcoa! Onec dira viotzetic Jaungoicoagana convertitcen dan pecatariaren sentimentubac: bere pecatubac ezagutcen ditu ban leguez, ezagutcen ere dau, eztabela merezi, Jaungoicoac beragaz misericordia eruquitenic. Mundu gustian eztau arquitcen, consolatu lei guian gauzaric: Damu dot, pecatu eguinaz: baña nere pecatua aurrian daucadalaco, eztago neretzat alivioric, eztago neretzat consueloric, esaten eben Sta Therecia Jesusec, deritzat guehiago sentituco nenguiala, nere culpac Jaungoicoac ain lastér parcatu ezpaleust; Baña aimbeste amoriogaz recivit con navelaco, eta misericordiaz ain betia dalaco, aritcentzat, bera ofendi dudodanen damutasuna, bada nere pecatuac aimbeste, eta ain andiac badira ere, ecin sufritu dau ni galtcea; Au gustia pasatcen da viotzetic Jaungoicoagana convertitcen dan animan; eztau pensatcen aimbeste viderr ofenditu daven Jaungoicoari gusto emotea baño; ezleut ce eraaten atencioric munducoac, aimbeste estimatcen dituan atzeguin-tasun guzurrezcoac, bada beti datorca memoriara lenago eruquidaben vici modu tristia, eta betetcen da lotzaz, consideratcean, mundua gaitic Jaungoicoa ofendidu davela, eta artcen dau asmuric firmena, berriz Jaungoicoa ofendidu baño lenago, viciza galtceco. Orain, bada; N.C. Arquitcen zare disposicio onequin? Mudatu ditezu bē ceuben borondatiac? Artu deutezube gorroto eguiazco bat Jaungoicoen contra eguiniko ofensai? despreciatu dituzube pecatu-ra eruaten cinduben ocasioac? Bada gañeracoan engañatcen zare falsoa da zuben penitencia, etzare viotzetic Jaungoicoagana biurtu. Baldin lenago pecaturaco servitcen eutzuben ocasioa oraindio deseatcen badozube, injuriaren bat eguin deut zubenai, arpegui illuna paratcen badeutzezube, zuben inclinacio gaiztoai oraindic jarraitcen badeutzezube, mundu onetaco neque, trabaju, eta naibagueac pacienciaz sufritceco disposicioan arquitcen ezpazare, falsoa da zuben penitencia,

etzare viotzetic Jaungoicoagana viurtu. Baldin munduben aurrian zuben buruba Jesu Christoren Discipulutzat euquiten, lotzatcen bazare, baldin zuben pecatuac confesatcean milla aitzaquiaz erdiac isiltcen badituzube, guzurrescoa da zuben combersioa. Etzaitece, bada, engañatu N.C.; munduba enga-ñatu daiquezube, baña ez Jaungoicoa, bada onec biotzari bacarric begiratcen deutzo: Eztautzazube Jaungoicoari sacri-ficio oberic esquinico viotz humillatua, eta damutasunaz puscatua baño; viotza da pecatuan parte izandana, viotzac borratu ere biardau pecatua. Orainguiño munduari entrega-tu deutzazuben viotz ori, entregatu egiozube emendic aurrera Jaungoicoari; modu onetan vicico zare munduban Jaungoicoa servitcen dozubela, eta guero gozatuco dozube ceruban secülaco gloria. Amen.

MAN 686

FUNDACION
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA